

ZUIAKARIRAKO ERREPORTAIA: TXIRRITOLA

Elkartearen izena

Txirritola Euskara Elkartea

Helbidea eta kontaktua

Momentu honetan Xabier Herrarte da elkarteko lehendakaria. Elkartearen lokala Aramaioko Kultura Etxean dago eta bertan egiten ditugu bilerak, normalean hilean bi aldiz.

Noiz sortu zen? Zein izan zen sortzeko arrazoi nagusia?

2000. urteko martxoan sortu zen. Bi arrazoi izan ziren nagusi: lehenik eta behin euskararen ezagutza Aramaion %86 izanda, erabilera askoz txikiagoa zela. Eta bestetik, Goiena komunikazio proiektua martxan jartzeko, ezinbestekoa zela euskara elkarte izatea eta Aramaion ez zegoenez, sortzea erabaki zen.

Gaur egun 100 bazkide inguru ditugu herrian.

Zein da elkartearen helburu nagusia? Zein da berezitasunik handiena?

Helburua herri mailan euskararen aldeko jarrera zabaltzea da. Eta sentsibilizazioaz batera, euskararen erabilera areagotu nahi dugu Aramaion. Horretarako, urtean zehar ekintza desberdinak antolatzen ditugu.

Zein motatako jarduerak antolatzen ditu elkarteak? Esanguratsua den bat nabarmenduko zenuke?

Batik bat ekintza kulturalak antolatzen ditugu. Hauek dira urteroko ekintza finkoak: Ipuin lehiaketa, Txirritolinpiadak herriko jaietan, Txirritola eguna (herriko sagardogileen laguntzarekin), Partxis lehiaketa San Martin eguna aprobetxatuz, Gabonetako menua abenduan.

Nobedade bezala, aurten sentsibilizazio kanpaina berezia egin dugu herrian, kartel desberdinen bitartez eta egunero errepikatzen ditugun hainbat egoera irudikatuz: parkean umeekin euskaraz hitz eginez eta alboko gurasoekin gazteleraz; etxean seme-alabekin euskaraz eginez eta bikotearekin gazteleraz; ...

Horretaz gain, aurten San Martin eskolako umeen bitartez Galder egitasmoa jarri dugu martxan. Honen bitartez, eguneroko elkarriketetan erabiltzen dugu euskara maila hobetu nahi dugu, gaizki esaten ditugunak zuzenduz.

Gainera, Aramaioko bertso eskolarekin harreman nahiko estua dugu eta urtero antolatzen dugu elkarrekin beste ekintza bat, esaera zaharrak landuz bertsoaritzaren bitartez. (bertso poteoaren formatoan, ekintza herrikoia da)

Azkenik, aipatu behar da aurten Topagunea elkarteko bazkide egin garela eta horien bitartez, antzerki, ipuin kontalari eta musika emanaldiak izan ditugula herrian.